

**INNOBASQUEREN BATZAR NAGUSIA**  
**ASAMBLEA GENERAL DE INNOBASQUE**

2022-06-15 Barakaldo 15-06-2022

***Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari***

Sailburua, Innobasqueren buru eta arduradunok zaretenok, Foru Diputatua baita Mondragoiko Unibertsitatearen errektore jauna, zaudeten herri agintari, herri ordezkariok, enpresetako arduradunok eta kideok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko Innobasqueri eta enpresei berrikuntzaren bidean egiten duzuen ekarpenagatik.

Egia da berrikuntzaren ekosistema indartzen ari garela eta egia da, baita ere, lankidetzaren bidez egiten dugula. Ez dago beste biderik, ondo aipatu den bezala:

- inbertsio publikoa eta pribatua bide berean jarri;
- idea eta ekinbide berriak sortu; eta, guzti horri esker...
- hiritarren aukerak eta ongizatea etengabe hobetzen jarraitu.

Coincido las reflexiones que ha trasladado el Presidente de Innobasque.

**En situaciones de Mayor incertidumbre nuestra respuesta debe ser Más innovación.**

Vivimos momentos de incertidumbres económicas que afectan al escenario mundial: Efectos aún permanentes de la pandemia; Repercusión negativa de la guerra de Ucrania en los mercados y en la geoestrategia mundial; Deterioro de las relaciones con Argelia que puede poner en riesgo el suministro de gas; Subida generalizada de precios; Limitación de los márgenes comerciales; Dificultades en las cadenas de suministro; o la propia evolución de los tipos de interés y las dificultades para acceder al crédito.

Todo ello dibuja un escenario de incertidumbre que debemos afrontar tal y como hicimos en situaciones similares en el pasado.

Nuestra respuesta como País y nuestra respuesta como empresa debe ser la acción.

Berrikuntza da ziurgabetasunari erantzuteko eskura dugun lanabesa.

Une honek, inoiz baino gehiago, erakundeen arteko erantzukizuna eta lan partekatua eskatzen digu; baita ere, enpresa munduarekin ditugun harremanak sustatzea eta sakontzea ere.

Ziurgabetasuna errealitate bat da, baina horren aurrean berrikuntzarako bidea indartzea dagokigu. Bide horretan ere badugu aukera bat.

Aukera eraldaketa sakona bultzatzeko... Aipatu den trantsizio global hirukoitzari erantzuteko... Aukera sektore berrietan inbertitzeko eta enplegu aukerak bultzatzeko... Aukera berrikuntza zabaltzen jarraitzeko.

### **Hemos avanzado en nuestra apuesta por la Innovación, pero no es suficiente.**

Ayer celebramos el Consejo vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación.

El balance es positivo:

-hemos aumentado nuestra inversión en I+D hasta el 2,08% del Producto Interior Bruto, tal y como se ha dicho; si bien mantenemos aún un gap con la media europea;

-han aumentado las solicitudes de patentes europeas y la producción científica de excelencia;

-una de cada cuatro personas empleadas en Euskadi trabaja en industrias de alto o medio alto nivel tecnológico;

-hemos incrementado la captación de Fondos europeos para proyectos de investigación de excelencia; y, sobre todo,

-actores públicos y privados estamos alienados en las prioridades estratégicas y territorios de oportunidad fijados en el horizonte 2030.

Estamos cumpliendo las expectativas, pero queda mucho camino por recorrer.

Voy a citar un dato que me preocupa: el porcentaje de empresas innovadoras de más de 10 empleados se mantiene en el 40%. Esto significa que 6 de cada 10 empresas manifiestan que todavía no realizan ningún tipo de innovación, bien sea en producto, procesos, marketing o tecnología digital.

Me preocupa porque supone que 6 de cada 10 empresas vascas se encuentran en riesgo de ver reducidos sus márgenes y su facturación, su capacidad competitiva...

La empresa que no realiza ningún tipo de innovación está poniendo en peligro su viabilidad futura. Esta es la realidad.

Desde el Gobierno vamos a seguir promoviendo la innovación cotidiana de las pequeñas y medianas empresas. Los programas Innobideak o Hazinnova están enfocados, precisamente, a las pequeñas empresas.

En Euskadi cualquier empresa que se decida a innovar cuenta con apoyo. Nadie puede quedar al margen y la "cultura de la innovación" debe formar parte de la "cultura de la empresa".

Eredu bat dugu, berrikuntzaren bidea jorratu dugu eta ibilbide horretan inbertitzen jarraitu behar dugu.

Innobasque da bidelaguna eta hemen partekatu behar dugu Estrategia gure ekonomia eta gizartea eraldatzen jarraitzeko.

Gure helburua Europako Eskualde aurreratuenen artean kokatuko den berrikuntza-politika bat garatzea da.

Berrikuntza funtsezko giltza da hazkunde jasagarria eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzeko.

Horretarako gure inbertsioak hazten jarraitu behar du.

Horrekin batera aurrera egin behar dugu berrikuntza enpresa-ehunean txertatzen.

Horregatik, Innobasqueren Batzar Nagusi honetan parte hartzen duzuen guztien ahalegina eta lana aitortzen dugu.

Europa nos ha reconocido como una Región de alta innovación. No es suficiente. Aspiramos a ser una de las Regiones europeas líderes en innovación.

Es un Reto de País que nos compromete a las instituciones, pero también a los centros tecnológicos, a la universidad y, sobre todo, a las empresas. A todas y a todos.

Tenemos un activo importante. Contamos con un Ecosistema propio de innovación.

Hemos conseguido aunar esfuerzos en un ecosistema coordinado y alineado. El compromiso del Gobierno es incrementar la inversión pública en I+D por encima del 6% hasta 2030. Compromiso que estamos cumpliendo con creces.

Toca sumar fuerzas para conseguir ser una de las regiones líderes en innovación europeas. Este es mi llamamiento. Este es el Reto que propongo a todas y a todos los agentes y empresas, y también al conjunto de la sociedad. Un reto ilusionante, posible e irrenunciable.

Eskerrik asko Innobasque-ri, eta denoi, berrikuntzaren erronkan bidelagun izateagatik.

Ondo izan!